



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**


Euskara biziberritzeko
ikergunea

2023ko martxoa

BERBA-LAPIKO

**Garapen metodologikoa ahozko
konpetentzietan aurrera egiteko**

**Hedapena ikastetxeetan
eta Ikerketa 2.0**



Proiektuaren Garapen Taldea:

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*

Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra

Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Berritzegune Nagusiko Aholkulariak

Sustatzailea

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila
Soziolinguistika Klusterra

Txostenaren idazleak:

Olatz Bengoetxea

Paula Laita

Agurtzane Azpeitia

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556
<https://soziolinguistika.eus/eu/> kluster@soziolinguistika.eus

2023ko martxo



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapen zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0	SARRERA	4
1	HEDAPENA	5
1.1	AHOLKULARITZA ETA JARRAIPENA	6
1.1.1	Aholkularitzako-prozesua eta lanak	6
1.1.2	Irakasleen balorazioak.....	8
1.2	DIGITALIZAZIOA.....	10
2	IKERKETA 2.0.....	13
2.1	IKASLEEN GARAPEN AZTARNAK	14
2.1.1	Azterketarako adierazleak.....	14
2.1.2	Emaitzak	17
2.2	IRAKASLEEN GARAPEN AZTARNAK	23
2.2.1	Azterketarako adierazleak.....	24
2.2.2	Emaitzak	24
2.3	IKERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK	26
3	ONDORIO NAGUSIAK	28

0 SARRERA

2022. urtera arte Berba-lapiko egitasmoa bi ikastetxetan garatutako ikerketa pilotuan ardatzu da. 2022. urtean aldiz, proiektuan beste bi ildo berri jarri dira martxan: *Hedapena* eta *Berba-lapiko 2.0*. Txosten honetan bi ildo horiei helduko diegu.

Egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko 2013tik aurrerako hitzarmenaren barruan kokatzen da; eta Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZIren zuzendaritzarekin.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatuko diena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Jarraian, 2022an garatutako bi lan-ildo berrietan jorratutako lanak jaso ditugu:

- **Hedapena:** Aholkularitza eta metodologiaren hedapena eta digitalizazioa.
- **Ikerketa 2.0:** Irakasleen ahozko gaitasuna-garapen aztarnak eta irakasleen ahozkotasanari buruzko pertzepzioan garapen aztarnak aztertzea.


1 HEDAPENA

Hastapenetik, Berba-lapiko ikerketaren helburu nagusietako bat izan da eskuratutako ezagutza zabaltzea, hau da, hasierako bi ikastetxeetan lau urtez garatutako ikerketa horretatik ateratako ondorio eta ezagutza berria, baliatzea antzeko egoeran dauden ikastetxeetan. Beraz, ildo berri hori martxan jarri da 2022an.

Hona hemen zabalkuntza estrategiari buruzko datu gako batzuk:

- 2021-2022 ikasturtean **17 ikastetxe berritan abiatu** da egitasmoa.
- **1000-1100 ikasle** aritu dira **hiru hilabetez** ahozkoa modu jabetu batean lantzen.
- **64 irakasle prestatu** dira ahozko hizkuntza lantzeko oinarrietan.
- **10 HN Aholkularik** jaso dute prestakuntza. Gidaritza eta aholkularitza eskaini dute.
- Garrantzitsua da zabalpena modu mailakatuan egitea beraz, **LH3 eta LH4. mailan** txertatu da proiektua. Kontziente ginen proba pilotu bat zela 17 ikastetxe berritara zabaltzeko egitasmoa, horregatik, amaieran, irakasle guztien ahotsa jaso nahi izan dugu (2.1.1 atala).

Jarraian xehetuko ditugu lan-ildo bakoitzaren nondik norakoak.



1.1 AHOLKULARITZA ETA JARRAIPENA

Egitasmoa ikastetxe berritan modu eraginkorren zabaldu ahal izateko, irakasleek jaso beharreko prestakuntza egoki diseinatu eta plazaratzea ezinbestekoa izan da.

Beraz, aholkularitza egituratzeko bi plano bereizi ditugu. Batetik, Soziolinguistika Klusterrak eta HuHeZik osatzen duen lantaldeak aholkularitza eskaini dio Berritzeguneko teknikari taldeari. Bestetik, horietako teknikari bakoitzak ikastetxe batzuen ardura izan du, guk eskainitako aholkularitza hori ikastetxean bertan gauzatzeko hango irakasle-taldearekin. Gainera, Berritzeguneko teknikariak giltzarri izan dira SL Klusterra-HuHeZi lantaldeak ikastetxeetako egoeraren berri izateko, eta aholkularitzan zehar behar izan diren moldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Zubi horiek ahalik eta eraginkorrenak izateko, etengabeko joan-etorrian proposatu dugu planoen arteko harremana. Alegia, ez da planteatu lehenbizi Berritzeguneko teknikariei aholkularitza osorik eskaintzea eta ostean haiek ikastetxera joatea irakasleak prestatzera. Horren ordez, Berritzeguneko teknikariei oinarri batzuk eskaini zaizkie, eta haiek oinarri horiek ikastetxean landu dituzte.



Horren ondoren, ikastetxeko prestakuntzaren deboluzioa egin diote SL Klusterra-HuHeZi taldeari, eta taldeak materialaren inguruko prestakuntza eman die Berritzeguneko teknikariei, haiek gauza bera ikastetxean egiteko. Era horretako etengabeko joan-etorrietan proposatu da aholkularitza, Berritzeguneko teknikarien zein ikastetxeko irakasleen beharretara gure prozesu guztia egokitu ahal izateko.

1.1.1 Aholkularitzako-prozesua eta lanak

Hiru fase nagusi nabarmendu dira prozesuaren antolaketan.

0. FASEA 2021eko udazkenean	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> ○ Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza Normalizaziorako Aholkulariekin (HNA) talde bat sortu. ○ Proiektuaren eta ikasturte honetako planteamenduaren berri eman ○ Parte-hartzaileen aukeraketa.
1. FASEA Aste Santu aurretik	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> ○ Bi prestakuntza saio: <ol style="list-style-type: none"> 1. saioa: ahozko hizkuntzaren oinarriak. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ SL Klusterra-HuHeZi taldeak → HNA-ak prestatu. ○ HNAek → irakasleak prestatu.

<p>2. saioa: hizkuntza errutinen gakoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipen bilera bat. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ SL Klusterra-HuHeZi taldeak + HNA-ak jarraipen bilera
<p>2. FASEA Aste Santu ondoren</p>	<p>URRATSAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Prestakuntza saio bat: material didaktikoa inplementatzeko gakoak. ○ Material didaktikoaren inplementazioa eta jarraipena. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ SL Klusterra-HuHeZi taldeak → HNA-ak prestatu. ○ HNAek → irakasleak prestatu ○ Eskoletan inplementazio lanak hasi. ○ Jarraipen saioak: SL Klusterra-HuHeZi taldeak ↔ HNA-ak → irakasleak ○ Grabaketak burutu.
<p>3. FASEA Ikasturte amaieran</p>	<p>URRATSAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> ○ Esperientziaren balorazioa: prestakuntza prozesuaren gainean eta erabilitako materialaren gainean. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Balorazio-saioak: SL Klusterra-HuHeZi taldeak ↔ HNA-ak → irakasleak.

Berritzeguneko teknikariek ikastetxean erabili duten materiala guk prestatu dugu, haien lana errazteko. Horrela, bai ahozko hizkuntzaren didaktikaren oinarriak, bai materiala inplementatzeko metodologiak eta baliabideak eskaintzen joan gara teknikariei saioz saio, eta guk haiekin landu ditugunak izan dira gero beraiek ikastetxeetan landu behar izan dituztenak.

Prestakuntza prozesu hau behar bezala egituratzeko, honakoak dira bete diren lanak.

- 0. fasean:
 - 1) Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu: taldeak osatzeko irizpideak markatu, talde ezberdinak koordinatu, ikastetxeen aukeraketa, datak jarri eta harremanetarako bideak sortu behar izan dira. Era berean, arduren banaketa ere antolatu da.
 - 2) Prestakuntza-prozesua diseinatu: saioen denboralizazioa, helburuak nahiz materialak. Materialetan, guk teknikariek erabili dituenak nahiz teknikariek ikastetxeetan behar izan dituenak prestatzea da helburua.
 - 3) Diseinatutako prestakuntza sozializatu partaide izan diren teknikariek. Era berean, sozializazio-saio hori prestakuntzan zehar baliatu den metodologia kontrastatzeko ere baliatu da.
- 1. fasean: prestakuntza saioak gauzatu, guk teknikariek nahiz teknikariek ikastetxeetan.

- 2. fasean: jarraipen saioak egin ditugu, aholkularien nahiz irakasleen prestakuntzari buruzko zalantzei, zailtasunei, kezkarri edota kasuistika ezberdinei irtenbidea ematen laguntzeko.
- 3. fasean: ebaluazio-bideak diseinatu eta prestatu. Ondorioz, ikastetxe gehiagotara zabaltzeko nahiz plataforma digitalean jartzeko formazio-pilulak eta materialak egokitu egin dira balizko oztopo horiei erantzuteko.

1.1.2 Irakasleen balorazioak

Ikasturtearen amaiairekin batera, ekainean bilerak antolatu dira proiektuan parte hartu duten irakasleen balorazioak jasotzeko. Hona hemen prozesu horren datu gako batzuk:

- Guztira **LH3 eta LH4ko 64 irakaslek** hartu dute parte.
- Landuko diren gaiak aurreratu zaizkie irakasleei aurretik hausnartzeko denbora izateko eta ebaluazioa ahalik eta sakonena eta osatuena izateko.
- **Aurrez aurreko elkarrizketa-saioak** ordubete inguruak izan dira, eta audioz grabatu dira.
- **Helburua** izan da, Berba-lapikoko errutinen esperientziaren amaierara iristear egonda, **irakasleen ahotsak jaso** eta benetan egindako prozesuaz eta ibilbideaz pentsatzen duten hori lasaitasunez gurekin partekatzea, esperientzia nola bizi izan duten jakiteaz gain, aurrera begira hobekuntzak egiteko. Horretarako, hiru alderdi izan dira aztergai:
 - Metodologia eta errutinak nola gauzatu dituzten.
 - Metodologiak zer-nolako harrera izan duen, bai irakasleengan, bai ikasleengan.
 - Irakasleek metodologia ikasgelan inplementatzeko jaso duten prestakuntzaren inguruak.

Irakasleen balorazioak behin jasota, antolatuta eta transkribatuta, corpusaren analisi kualitatiboa egin dugu, Atlas.ti ikerketa kualitatiborako tresnaren bitartez (3.2.1 atala). Irakasleek emandako informazioa kodetu dugu eta gai orokorretatik baita testigantzetatik ere abiatuta, azpiko gaiak, kategoriak eta kodeak sortu ditugu. Prozesu horrek lagundu digu "titularrak", hau da, emaitzak ateratzen modu sistematizatu batean. Azterketa horretatik, irakasleen balorazioen **analisiaren ondorio orokorrak** jaso dira.

Hona hemen laburpena:

- **Nahiz eta hasieran urduri eta galduta sentitu, orokorrean irakasleak gustura aritu dira.**

Irakasle batzuek metodologia aplikatzeko zailtasunak aurkitu arren, orokorrean, gustura azaldu dira, eta ikasteko aukeratzat hartu dute proiektua. Dena den, batzuk zalantzan, galduta, urduri eta grabaketekin deseroso sentitu dira.

- **Metodologiari eskainitako tartea eta ordutegia aldakorrek izan dira.**

Metodologiari eskainitako batez besteko denbora 15-60 minutukoa izan da. Irakasle gehienek luzatu dituzten saioak, bai umeak oso gustura egon direlako, bai material guztia erabiltzeko astirik izan ez dutelako. Ikasleentzat zaila izan da egunaren ordu berean egitea, eskolako ordutegiarekin bateratu behar izan dutelako. Goizean, zein arratsaldean antolatu dituzten saioak, egunaren ordutegiaren eta ikasgaien arabera. Kasu askotan euskara saioa erabili dute horretarako.

- **Materialak erabilgarriak izan dira irakasleentzat.**

Irakasleen ustez, saio bideratuak eta materialak ondo antolatuta daude eta lagungarriak eta erabilgarriak izan dira.

- **Oztopo nagusia denbora falta izan da.**

Irakasleek aipatutako zailtasunen artean, denbora falta izan da oztopo nagusia; estu ibili dira saioak bukatzeko. Ikasleen hizkuntza maila baxua, eta ikasleen hizkuntza mailan dauden alde handiak ere aipatu dituzten zailtasun gisa.

- **Metodologiak ondo hartu dute irakaslek.**

Metodologia erakargarria eta dinamikoa iruditu zaie irakasleei.

- **Ikasleak ere gustura aritu dira. Parte-hartzaile aktiboak bihurtu dira, eta sortu den erosotasun eta goxotasun giroak eragin ona izan du ikasleen hizkuntzarekiko jarreran.**

Metodologiak ikasleen rola aldaketan ere eragin du: subjektu pasibotik subjektu aktibora izatera pasa dira. Hitz egiteko denbora gehiago eskaini zaie eta parte hartzaile nagusiak bihurtu dira saioetan. Lekua, musika eta beste tresna batzuen bitartez (adib. ikasleek etxetik ekarritako kuxinak) sortutako giro bereziak eragin onuragarria izan du eta ikasleak kokatzen lagundu du. Goxotasun giroak erosotasuna eta besteen aurrean hitz egiteko konfiantza maila handitzen lagundu du. Esperientzia pertsonalak partekatzeak eta etxean familien parte-hartzeak ikasleen dinamikarekiko eta hizkuntzarekiko atxikimendua garatzen lagundu dute.

- **Metodologia eraginkorra izan da: irakasleek hobekuntza sumatu dute ikasleen ahozko ekoizpenetan.**

Metodologia sistematikoa eta eraginkorra iruditu zaie irakasleei. Gehienetan, aurrerapena ikusi dute ikasleen ahozko ekoizpenetan. Modu kontzienteago batean hitz egiten dute, eta testuaren egiturari, lexikoari, gramatikaari eta jarioari hobekuntza ikusi dute. Idatzizkoan ere aurrera egin dute.

- **Ikasleek hasieran azaldutako zailtasunak denborarekin gainditu dituzte.**

Irakasleek sumatu dituzte zailtasun nagusiak besteen edo kameraren aurrean hitz egiteko lotsa, beldurra eta urduritasuna izan dira. Dena den, denborarekin hitz egiteko konfiantza handiagoa sortu dute. Bestalde, hiztegi eta beste hizkuntza baliabide batzuen ezak ere trabak egin dizkie.

- **Irakasleek ahozkoa lantzeko eta zuzentzeko estrategia eta dinamika berriak bereganatu dituzte.**

Irakasleek zuzentzeko estrategia eta irakasteko dinamika eta ohitura berriak ere lortu dituzte.

- **Irakasleei laguntza eta jarraipen gehiago izatea gustatuko litzaieke.**

Irakasleak pozik egon dira jasotako prestakuntzarekin. Dena den, aholkularien egonkortasuna, epe zehatzagoak, zuzeneko laguntza eta gomendio gehiago eskertuko lituzkete.

- **Irakasleek balorazio positiboa eman diete metodologiari eta proiektuari.**

Nahiz eta lan karga handiagoa ekarri duela aitortu, metodologiari buruzko irakasleen balorazio orokorra positiboa izan da.

- **Irakasleek proiektua eta prestakuntza aurreratzea, ziklo guztietan ezartzea eta materialak partekatzeko plataforma sortzea proposatu dute.**

Hurrengo ikasturteari begira, irakasleek hainbat proposamen egin dituzte: lehenik, plangintzari dagokionez, prestakuntza eta proiektua aurreratzea proposatu dute, lehenengo edo bigarren hiruhilekoan hasia eta ikasturte osoan zehar mantentzea; bigarrenik, malgutasun handiagoa eta denbora luzeagoko saioak egiteko aukera eskatu dute, eskolako ordutegiarekin eta gelaren beharrekina errazago bateratu ahal izateko; hirugarrenik, metodologia ziklo guztietan ezartzea eta materialak taldeen beharretara egokitzea komenigarria iruditu zaie; eta, azkenik, materialei dagokionez, hiztegi gehiago eta ebaluatzeko irizpide zehatzak jasotzea eta materialak partekatzeko plataforma sortzea gustatuko litzaiekeela aipatu dute.

Irakasleek iritzia eta egindako proposamenak aintzat hartu dira eta 2023an ziklo berrian egokitzapenak egiteko erabiliko dira.


1.2 DIGITALIZAZIOA

Hedapenarekin batera, ezinbestekoa iruditu zaigu maila digitalean salto kualitatibo bat ematea. Egun, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) tresna indartsuak ditugu jakintza sustatzeko, ez soilik ikasleentzat, baita irakasleentzat ere. Beraz, arlo digitalari garrantzia eman nahi izan diogu, proiektua bera, eta honen eragina zabaltzeko asmoz, funtzionamendu autonomo bat bultzatuz. Hau da, hezkuntza komunitateko edonork aparteko aholkularitarik gabe Berba-lapiko egitasmoko metodologiak inplementatzeko aukera izatea.

Xede hori lehenetsita, jarraian jaso dugu, 2022an egindako bidea:

- **Plataformaren izaera adostu**

Hedapenaren lanetako bat euskarria sortzea izan da. Horretarako, lehenik euskarriaren funtsa eta izaera argitu behar izan dira. Beheko irudian jaso dira erabakitako hainbat alderdi garrantzitsu.



- **Lanen aurreikuspena eta antolamendua**

Lan-ildo horri lotutako eginkizun orokorrak zehaztu dira, hedapen-taldeko lanak antolatzeko abiapuntua izateko.

Beheko lanak aurrera ateratzeko, ezinbestekoa izan da hezkuntza sailarekin batera hedapen-talde bat sortzea. Ezkerreko zutabearen jaso dira batik bat "edukiaren lanketarekin" zerikusia izan duten zereginak. Soziolinguistika Klusterreko eta HUHEZIKo ikerlariak hartu dute atal horren ardura nagusia sortu den taldearekin batera. Bestalde, eskubiko zutabearen "alderdi teknikoari" erreparatu diogu:

EUSKARRI DIGITALA	
EDUKIEN LANKETA	ALDERDI TEKNIKOEN LANKETA
<p>Proposamen bat sortu:</p> <p>prototipoa egin eta errelato bat irudikatu.</p>	<p>Plataforma adostu:</p> <p>Bilatu/aukeratu non kokatuko den, plataformaren izaera, antolaketa.</p>
<p>Errelatoa idatzi eta modu interaktiboan irudikatu:</p> <p>hartzaileari harrera egin, ikus-entzunezkoak eskaini plataformaren erabilera azalduz eta atalak osatu.</p>	<p>Maketazio-lanak:</p> <p>edukiak egokitu plataformara igotzeko.</p>


<p>Formazio-pilulak sortu:</p> <p>edukia pentsatu, grabaketa eta edizio-lanak.</p>	<p>Plataforma elikatu.</p>
<p>Material didaktikoak birpasatu eta horretarako, irizpideak bateratu.</p> <p>*Berritzegune Nagusiko aholkulariei eta IRALEko prestatzaileei LH4ko H. Errutina didaktikoa helarazi zaie.</p>	<p>Plataforma osatzen joan: atal berriak sortu, egokitzapenak egin.</p>
<p>M. didaktiko barruko euskarri profesionalak sortu</p>	<p>Ikus entzunezkoak sortu, editatu.</p>
<p>...</p>	<p>...</p>
<p>EUSKARRIA BERA PILOTATU eta ondoren, BALORATU.</p>	

2 IKERKETA 2.0

Berba-lapiko egitasmoa hedatzeko irakasleen prestakuntza eta aholkularitza gauzatzeaz gain, funtsezkoa zen metodologiak izan duen inpaktua ikertzea. Horretarako, Berba-lapiko 2.0 Ikerketa gauzatu da. Hona hemen proiektuaren ildo horri buruzko datu gako batzuk:

- Hedapen fasean, Hizkuntza-errutinen metodologia erabiltzeko aukera izan duten 17 ikastetxeetatik **4 ikastetxetan** abiatu da ikerketa.
- **EAEko 3 lurraldeak ordezkatzeari** bermatu da.
- 2022ko **urtarriletik-ekainera bitarte** egin da **corpus bilketa**.
- Bi ikergai jorratu dira: alde batetik, **ikasleen garapen aztarnak** aztertu dira, hau da, ikasleek zein aurrerapen egin duten ahozko ekoizpenetan; eta beste alde batetik, **irakasleen garapen aztarnak** ikertu dira, hau da, irakasleen hautemateetan, zenbaterainoko jautzia egon den, ahozkoaren lanketari dagokionez.
- Analisari dagokionez, **ikasleen 120 ahozko ekoizpen** baino gehiago eta **irakasleen 16 testigantza** aztertu dira.

Hurrengo ataletan ikerketaren bi ikergaien azalpena eta emaitzak jaso dira (3.1 eta 3.2 atalak), ikerketan ateratako ondorioekin batera (3.3 atala).



2.1 IKASLEEN GARAPEN AZTARNAK

Ikerketa honen lehenengo ikergaia, ikasleen garapen aztarnak aztertu dira, hau da, ikasleen ahozko ekoizpenetan, gaitasunari dagokionez zein garapen aztarna antzeman izan diren bereziki hizkuntza errutinetan langai izan dituzten alderdietan oin hartuz.

2.1.1 Azterketarako adierazleak

Lehenengo ikergai honetarako, **ikasleen ahozko gaitasuna-garapen aztarnak**, errutinetan langai izan dituzten alderdiak eta ahozko ebaluatzeko esanguratsuak diren zenbait errubrika aintzat hartu ditugu (Dolz, 2004; ISEI-IVEI, 2013; Vila et al, 2021)¹. Hiru adierazle nagusitan jarri dugu arreta: ahozko jarioan, langai izan den generoaren hezurduran (planifikazio mailan) eta hizkuntza formetan. Adierazle horiek bereziki errutinekin erdietsi nahi izan ditugu helburuetatik eta errutinetan landutakotik eratorri dira, eta, beraz, adierazle hauek guztiak ere kontuan izan ziren errutinen diseinuan ere. Horiez gain, ordea, ez ditugu albo batera utzi nahi izan elementu ez berbalak eta hartzailearen funtzioa izan, ahozko ekoizpenen ezaugarri direlako.

Alderdi horiek ebaluatzeko, Condemarin eta Medinaren arabera (2000), informazio erabilgarria eskaintzen du **errubrikak**; ikaskuntzan izandako garapen maila ebaluatzeko ekarpena egiten du, bereziki dimentsioak, irizpideak eta mailak eskaintzen dituen bitartekoa delako (Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek 2015:12)².

Errubrikak bi motatakoak izan ohi dira: holistikoak eta analitikoak. Lehenak, begirada globala eskaintzen du eta analitikoak, berriz, hizkuntza jardura hori dimentsio edo gaitasunetan eta irizpidetan bereizten du (dimentsio linguistiko, testual, diskurtsiboa...). Azken horri Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek (2015) honako abantailak ikusten dizkiote:

- Dimentsio bakoitzeko (eta gure kasuan dimentsio hori irizpideen arabera desglosatuta egongo da) ikasleek duten maila ezagutzeak aukera eskaintzen du dimentsio bakoitza berariaz landu, irakatsi, praktikan jarri eta ebaluatzeko: "Al dar a conocer por separado el desempeño esperado en cada dimensión, las rúbricas analíticas permiten enseñar, practicar y evaluar cada una de las dimensiones de la producción" (2015:12) .
- Halaber, ekoizpenetan arretaguneak zehazten laguntzen du, eta konplexutasunaz jabetzen ere bai.

¹ Dolz, J.(2004). Produire une explication en chimie à l'école primaire. Le jus de chou rouge: un indicateur coloré. In: K. Canvat, M. Monballin & M. van der Brempt (Ed.) Convergences aventureuses. Littérature, langue, didactique. Pour Georges Legros (pp.89-109). Namur: Presses universitaires de Namur.
ISEI-IVEI, Berritzegune Nagusia eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2013). Hizkuntza komunikazioa: Euskara. LH 4. maila. Ebaluazio-diagnostikoa 2012.
Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

² Sotomayor, C., Ávila, N. eta Jéldrez, E. (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula, Chile*. Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

- Garapen horretan indargunean eta hobetzekoak identifikatzen ere laguntzen du.

Guk geuk ere ikasleen garapenaren aztarnak ebaluatzeko, bi alderdi uztartu ditugu: batetik, ikasleen garapenaren argazki orokor edo global bat ematen saiatu gara, eta bestetik, ikasle horren ahozkoan gaitasun edo dimentsio bakoitzeko egin duen garapena gehiago zehazten saiatu gara.

Eraiki dugun errubrika ez zen hutsetik sortu, hainbat adituren³ ekarriak eta ahozkoa lantzeko zenbait errubrika aztertu eta hizkuntza errutinen metodologian maila bakoitzeko langai izan diren adierazleak ere modu mailakatuan txertatuz eraiki da. Funtsezkoa da errubrika nola antolatuta edo osatuta dagoen gehiago zehaztea, esan dugun bezala, ikasleen emaitzak ere horren arabera aztertuak izan baitira.

Ahozkoaren lanketari begira, eta hizkuntza errutinetan langai izan ditugun alderdiak aintzat hartuz, sortu dugun errubrikan bi dimentsio nagusi bereizi ditugu: dimentsio linguistiko testuala eta dimentsio diskurtsibo-erretorikoa. Dimentsio bakoitzaren barruan, hainbat irizpide daude, dimentsioa bera desglosatzen dutenak eta azterketari begira eta hizkuntza errutinetan langai izan dutena aintzat hartuz esanguratsuak direnak.

a) Dimentsio linguistiko-testualean:

- **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentzia:** helburu komunikatiboei erantzuteko, ikasleen ahozko ekoizpena zentzu-unitate gisa (modu autonomoan eta koherentean) nola antolatzen den aztertu da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. Beraz, ea eskatutako testuaren testu-egitura errespetatzen den ikusi da irizpide honekin: kontaketa, narrazioa, deskribapena edo gure kasuan jolasen azalpena non, norekin eta nola jolasten den arau, urratsak azalduz (LH3) eta bihurrikeria baten azalpena (LH4). Horrekin batera, informazioaren arteko harremanak gauzatzeko hizkuntza-mekanismoak (kohesio- baliabideak) erabiltzen diren ere bai.
- **Morfologia** eta honen barnean **deklinabidea** eta **aditza** nabarmendu ditugu.
- **Sintaxia** ahozko diskurtsoan perpaus bakunez gain, koordinatuak nahiz menpekoak ekoizteko gai den; eta
- **Lexikoa** edo langai izan den edota ez den hiztegia murrizta den ala askotarikoa. Funtsean, arau morfosintaktikoen erabilera zuzena den zehaztu da, baita lexiko egokiaren erabilera zuzena eta askotarikoa den ere.

³ Carmen Sotomayor Natalia Ávila Elvira Jéldrez (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula*, Chile, Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law*, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

ISEI-IVEI (2021). *Ebaluazio-diagnostikoaren markoa (Lehen Hezkuntzako 4. maila): hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia* (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza)

ISEI-IVEI. "Mintzamenerako ebaluazioa": LH4.maila

Garro, E.; Pérez, K.; Azpeitia, A. eta Irizar, A. (2021). "Jendaurreko ahozko aurkezpen lanketa unibertsitatean Sekuentzia didaktiko eta praktika gogoetatsuen bidez", *Ikastaria*, 18. zenbakia, 195-219 orr.

2.1.2 Emaitzak

Lehen aipatu dugun bezala, Berba-lapiko 2.0 ikerketaren baitan, 2021-2022 ikasturtean, lau eskolek parte hartu dute. Beraz, LH3 eta LH4 mailako ikasleekin hiru hilabetez modu sistematiko eta progresiboan hizkuntza errutinak inplementatu dira, oinarrizko hizkuntza formak ezagutu eta erabilera errealean ekoiztu ditzaten. Horrekin batera, noski, ikasleek hizkuntzarekin gozatzea eta euskarekiko atxikimendua handitzea ere nahi izan da, kultura baliatuz hitzun aktiboak sortzeko.

Ikasleen ahozko gaitasuna-garapen aztarnak analizatzeko, funtsezkoa izan da ikasleen abiapuntua zein den jakitea. Horretarako, errutinak abian jarri orduko, ikasle batzuen ahozko ekoizpenak izan ditugu aztergai (aurretestutzat). Ekoizpen horiek bidez grabatu, transkribatu eta aztertu ditugu lehen aipatutako adierazleak kontuan izanik (3.1.1 atala). Errutinen amaieran, modu berean, ikasle jakin horien ondotestuak aztertu dira, nolako garapen aztarnak atzematen diren ikusteko. Hala ere, egoki ikusi dugu tarteko prozesua ere jasotzea eta horretarako, errutinek iraun izan den bitartean, une batzuk diseinatu ditugu ikasle berberen ekoizpenak grabatu, transkribatu eta aztertzeko.

Segidan jaso ditugu LH3. eta LH4. mailako emaitzak:

a) LH3ko emaitzak

Maila honetan, azalpen edo instrukzio testuaren baitan oinarrizten da Hizkuntza Errutina (*Solas eta jolas* izenekoak).

- **Helburua** da azken ekoizpenean (ondotestuan) beste maila bateko gelakoei jolasak azaltzea.
- Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak** honako hauek dira: instrukzio testuen egitura orokorra ezagutzea; jolasen azalpenen makro eta mikro egitura barneratzea; antolatzaile sinpleak ikasi eta ahoz erabiltzea (*lehenengo, gero, ondoren, hori egin ostean, bukatu eta gero, hori egin eta gero, bukatzeko*); "behar izan" aditza erabilera ezberdinetan ezagutzea ("*material hau behar da*" / "*hau egin behar da*"); aditz denborak modu jabetuan erabiltzea (1.plurala + 3. singularra bereziki); orainaldiko aspektua eta "behar" egitura lantzea ("*ezkutatu behar da*"); etorkizuneko aspektua ("*ezkutatuko da*"); jolas munduarekin lotutako lexiko berria ikastea eta erabiltzea (*zapia, soka, baloia, ezkutatu, harrapatu, korrika egin, asmatu*); ergatiboari erreparatzen hastea; baliabide ez berbalak lortzea (hitzaren, eskuaren eta espazioaren arteko artikulazioa).
- **LH3. mailan 12 aurretestu eta ondotestu** aztertu dira, hau da, **24 ekoizpen** hain zuzen ere.
- Emaitzak labur-labur:
 - Ikasle gehienek **D maila edo C maila batetik abiatu** dira eta **maila bateko jauzia egin dute** (nahiz eta adierazle guztietan ez gertatu).
 - Ez dugu **B maila batetik A maila baterako jauzirik ikusi**, ezta bi mailako jauzia egin duenik ere.

Argazki zehatzagoa, adierazlez adierazle:

1. D maila batetik C maila baterako jauzia:

Adibidea:

Aurretestua	Ondotestua
<p>Ik: Ikaslea</p> <p><i>Ik: e:: (3´´) jolasa: / a:e nire jolasa: / ae:m sakuzko: lasterketa (3´´) e:: per-pertso e: jolastu nahi duten pertsonak sartzen dira zaku-etan eta: gero e:: / korrika egit- [bere burua zuzentzen] saltoka joaten dira / e:: e:m-metara: hel-du: arte</i></p>	<p>Ik: Ikaslea</p> <p><i>Ik: azalduko dudan jolasa: / a-e::m / a::-tezan baloi / atezai:n baloia da / et-e:: eskolan jolasten nue:n eta: / e:-la: nire lagunekin / pa:-lehenengo partaide bat porterian ja-jarri behar da: / ge:ro beste partaideak e:: / sartu behar dute: baloia porterian / sartzen-e:: / ba... / partaide batek sartzen duenean porterian bera geratzen da / jolas honetan f-faltak / penaltiak / esku:ak / eta:: / kanporaketak daude / e:: / jolas hau egiteko: porteria / e:m / eta baloia behar da</i></p>

D-C jauzia egin duten ikasleek bereziki **testuaren kohesioari eta testuaren antolamenduari** dagokion adierazlean egin dute jauzirik nabarmenena. Aurretestuan, oro har, jolasaren azalpenean zuzenean nola jolasten den azaltzen saiatzen dira, jolasaren egiturarik errespetatu gabe. Ondotestuan, berriz, jolasa azaltzeko, egitura neurri batean betetzen dute: jolasaren izena zehaztearekin batera ("azalduko dudan jolasa x da") atal hauetariko batzuk agertzen dira: non, noiz eta norekin jolastu azaltzen dute eta nola horretan zer behar den esaten dute.

Antolatzaileei dagokienez, aurretestuetan ideiak solteago agertzen dira, edo "eta" batekin lotzen dira. Ondotestuan beste hainbat antolatzaile berri ere agertzen dira: "lehenengo", "gero" ("gero amaitu ostean / e: e: zenbatzen dituen bitartean").

Sintaxiari dagokionez, aurretestuan sintaxi oso sinplera mugatzen da (irakaslearen galderen erantzun diren hitz solteek osatzen dute, oro har). Ondotestuan, oraindik esaldi sinplea badago ere, konposatu koordinatu batzuez gain, denborazko menpeko perpausen bat agertzen da ("poliziak amaitu dutenean zenbatzen / bilatu behar dute / Eta harrapatzen badute / e: kako baten bati e: kartzelara eraman behar du").

Horrez gain, **egoera komunikatiboari** ez egokitzetik hobeto egokitzen pasatzen dira eta diskurtso luzeagoa eraikitzen. Gainera, jolasa azaltzeko eta ulertarazteko bitarteko gehiago: gorputz keinuak, deiktikoak (hemen, hor jarri), arauak eta urratsak azaltzeko antolatzaileak, lexiko zehatzagoa eta ugariagoa... Beraz, jarioan eta kalitatean aldea antzematen da, azken batean diskurtso konplexuagoa eta azalpen hedatuagoak ekoizten dituzte.

Ez dituzte ideiak birfomulatzeko, zehazteko zein adibidetzeko **diskurtso-estrategiarik** erabiltzen.

D-tik C-rako jauzia egin dutenengan **aurrerapen txikiagoa** agertzen da **deklinabidean eta lexikoan**. Oinarrizko deklinabide kasu markak erabiltzera iristen dira, eta oraindik lexiko murriztarekin jarraitzen duten, nahiz eta aditz-ekintzak ugaritu. Lexikoaren erabileran oraindik gaztelaniarako joera handia da ("*kolatu*", "*prima*"). Hala ere, ekoizpenetan ikusi liteke autozuzenketarako joera txiki bat: gaztelaniazko hitza burura etorri arren, unean bertan autozuzenketa egin ("*korrika egit- [bere burua zuzentzen] saltoka joaten dira*").

Hitzak euskaraz ekoizteko kontzientzia indartzen ari da, eta erdal hitzak erabili ordez, euskal ordaina emateko joera ("*azalduko dudan jolasa: / a-e::m / a::-tezan baloi / atezai:n baloia da [gol-golportero ez da euskaraz]*").

2. C maila batetik B maila baterako jauzia:

Adibidea:

Aurretetua	Ondotetua
<p>Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat</p> <p><i>Ik: Atrapa la bandera. Ir- Atrapa la bandera. Ik: Bi edo hiru talde egin... Ikaslea [x]- Hiru talde. Ik: Bueno edo bi. . (...) Ik: Bi edo hiru talde egin be:ar dugu eta erdian dago, e:, cuerda bat edo bandera bat...eta taldeak e: harrapatu beh:ar dugu. Ir: Zer harrapatu beh:ar duzu? Ikaslea [x]- Gorriak ezin du horia, e: harrapatu. Eta, horiak ezin du gorria, baina, horia ahaldu naranjari harrapatu eta gorria laranjari, baina, eta laranjak harrapatu ahaldu gorria eta horia. Ik: Ez, eske e: ez. Bat ge:hiago ez , e:... Ik2- Batzuetan bai. Ik: Gorrian bat ge:iago e: zeuden, ze: Ik2- Bi ge:iago. Ik: Ez bat. Ir: Bueno, agian IK-k beste modu baten jolasten du. IK-k kontatuko digu berak. Ik: A ze ko, e:, kanpo daukagu eta e: sokarekin edo banderarekin joaten gara bere kanpo e:, kanpo e: gure kanpora e: irabazteko. Eta...</i></p>	<p>Ik: Ikaslea Ik2: Beste ikasle bat Ik3: Beste ikasle bat</p> <p><i>Ik: nire / nire jolasa casual deitzen da / Eta Ik: nik gimnasioan nire lagunekin jolasten dut / (3) E: e: pilota bat / bueno sei pilota / e: soka bat eta zelai bat be:ar dira / E:... Ik: Soka ipini be:ar / soka zelai erdian ipini be:ar da / Eta e: / eta e: / eta le:enik e: soka e: zelai erdian ipini be:ar da / E: gero e: e: pilota e: / hiru pilota zelaian e: como hemen, hemen bat... [pilotak lurtean uzten ditu] Ik2: Hemen bat, beste bat beste bat hor, beste bat hor [x] ipini be:ar dira. Ik3: Eta gero beste zelaia... / Eta gero, jolas (4) / Eta gero esaten dutenean dachball / E: hasten e: hasten da jolasa, baina, baina e: / le:enengoz nik dakitenez egin be:ar dira eta bi talde. Ik2: Según ze kolorez nahikoa da. Ik3: E: e: dachball esaten da / e: dachball esaten e: / denean e: jolasa hasten da / (2) Ik: eta, e: Ik2: Korrika... Ik3: egin be:ar da / e: eta e: e: beste taldekoei eman be:ar dugu / Ondoren, ondoren, eman / ematen badugu / e: e: esertzen gara banku batean, non...</i></p>

	<p><i>Pertsona [x]- Gero eliminatuta dago. Ik: Eta azkenik / eta azkenik e: / azkenik bukatzeko / pilota / pilota airean / pilota airean hartu be:ar da / Eta e: irabazteko / e: beste taldekoei eman be:ar duzu. (6)</i></p>
--	---

C-B jauzia egin duten ikasleek **bereziki adierazle hauetan egin dute aurrera.**

C-tik B-rako jauzia egiten dutenen artean ere **testuaren kohesioan eta koherentzian** sumatu da alderdirik nabarmenena, baina baita diskurtsoaren konplexutasunean ere. Aurrettestuan mezua eraikitzeke zenbaitetan irakaslearen galderak behar badira ere, ondotestuan **mezua beregaina** da eta modu autonomoan ematen da.

Egoera komunikatiboari hobeto egokitzen dira ekoizpenak: sarbide edo gairatzea egiten da ("*jolas hau harrien jolasa deitzen da*"), eta zenbaitetan arauak emango dituela esplizitatzen da ("*jolas honetako arauak dira*"). Arauak emateko garaian askotariko aukerak baliatzen dira: **aginteraz**, ("*hartu txanpon bat, eta gero airera bota*") edo **baldintzazko esaldiaz** ere bai ("*eta egiten baduzu guztiekin, irabazten duzu*").

Ideiak elkarrekin josteko aurrettestuan baino **antolatzaile gehiago** agertzen dira: "lehenengo", "gero", "bukatzeko" ("*eta gero esaten dutenean, gero beste zelaian, ondoren ematen badugu, bukatzeko pilota airean hartu behar da, azkenik bukatzeko...*")

Azalpenean **hartzaileari gerturatzeko estrategiaren** bat edo beste ere baliatzen da: bigarren pertsona, edo hartzaileen izenak baliatu ditu ("*eta gero egin behar duzu beste batekin*", "*eta egiten baduzu guztiekin irabazi egiten duzu*") eta kontatu beharrekoa zehazteko ahaleginak egin ditu: lexiko zehatzagoa, deiktikoak ("*soka ipini behar da, soka zelai erdian ipini behar da, eh, como hemen, hemen bai [keinuekin azalpena ematen du]*") baliatzen ziren.

Ideiak birpopulatzeko edo zehazteko saiakeraren bat badago, baina oraindik diskurtso-estrategiak gehiago landu behar dira ("*soka ipini behar, soka zelai erdian ipini behar da*"). Diskurtso konplexuagoaz gain, erritmo bizkorragoa eta naturalagoa aurrettestuan baino ondotestuan.

C-B jauzia egin duten ikasleek **adierazle hauetan egin dute jauzirik txikiena.**

Alde txikiagoan, **morfologian** deklinabide kasuei dagokienez, jauzi txikiagoa antzematen da, oro har. Aurrettestuan deklinabide kasuak gutxi baliatzen dira, nagusiki *absolutiboa* da gehien errepikatzen dena ("*sare bat egon behar da*"), baina ondotestuan zehazteko *noren* eta *nongo* izen lagunak erabiltzen dira zenbaitetan: "*harrien jolasa*", "*jolas honetako arauak*". Aditzari dagokionez ere, aldea antzematen da: aurrettestuan oso aditz gutxi daude eta kasu batzuetan forma ez egokia ("*egiten dira bi talde*"). Ondotestuan forma gehiago ageri dira eta modu egokian erabilia oro har, nahiz forma perifrastiko gutxi agertu.

Sintaxiari dagokionez ez da aldaketa handirik ikusi, baina honako hauek nabarmentzen dira: Aurretestuan zein ondotestuan sintaxi nahikoa sinplea baliatzen da eta bereziki koordinaziora mugatzen da. Hala ere, bada alderik: ondotestuan koordinaziokoak aberatsagoak dira eta emendiozkoez gain ("eta") hautakariak eta aurkaritzakoren bat edo beste ere ageri da ("edo", "baina"): "*hasten da jolasa, baina, baina lehenengo nik dakidanez...*"; eta menpeko perpausak (denborazkoak) maizago agertzen dira: "*soka zelai erdian ipini behar da, eta gero esaten dutenean dathbal, hasten da jolasa, baina lehenengo, nik dakitenez, egin behar dira bi talde..*". Horrez gain, baldintzazko perpausak ere baliatzen dira ("*ondoren ematen badugu, eh, esertzen gara banku batean*"). Jolasa azaltzeko orduan, gainera, ondotestuan antolatzaileak baliatzen ditu: "*eta gero esaten dugunean*", "*gero beste zelaian*", "*ondoren ematen badugu*", "*bukatzeko pilota airean hartu behar da*", "*azkenik bukatzeko...*".

b) LH4ko emaitzak

LH4 mailan, kontaketa da oinarrizko testua, horren baita egituratzen da materiala (*Bizitzako pasadizoak*).

Helburua da hasieran ikasleek elkarren artean bihurrikeriak kontatzea, eta azken ekoizpenean (ondotestuan) udako pasadizo bat euren artean partekatzea.

Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak** honako hauek dira: kontakizunen egitura orokorra ezagutu eta barneratu. oinarrizko hizkuntza formak ulertzea eta ekoiztea (*noiz, non, norekin*), senitartekoen lexikoa ikastea, aditza lehenaldian lantzea (izan/ukan aditz laguntzaileak), eta ekintza-aditzak ikastea; elkar" partikula ezagutzen eta erabiltzen hastea.

Lau ikastetxetako datuak aztertu dira. Guztira, **12 ikasleren aurretestu eta ondotestuak** aztertu dira, hau da, **24 ahozko ekoizpenak**.

Emaitzak labur-labur:

- Ikasle gehienak **C maila batetik abiatu** dira eta **jauzia egin dute**, nahiz eta kasu batzuetan ez den maila oso batera iritsi izandako garapena. Beste era batera esanda, ikasle horiek **C maila batetik, B maila "baxura"** egin dute jauzia.
- Kasu banatan, **D-C eta B-A mailen arteko jauzia** antzeman da. Beraz, LH 4. mailako ikasle gehienek aurretestutik ondotestura jauzia egin dute. Jarraian, datu zehatzagoak, adierazlez adierazle.

1. C maila batetik B maila baxu baterako jauzia:

Adibidea:

Aurretestua	Ondotestua
Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea Ik2: Beste ikasle bat	Ik: Ikaslea Ir: Irakaslea

<p><i>Ir: Orain IK txanda / Lasai egon IK!</i> <i>Ik: E: (5")</i> <i>Ir: Lehenengo, noiz?</i> <i>Ik: E: urte batekin.</i> <i>Ir: Bale / Norekin?</i> <i>Ik: E: nire aita eta amarekin.</i> <i>Ir: Bihurrikeriak egiten ya urte batekin / Zure ama eta?</i> <i>Ik: Aita.</i> <i>Ir: Bale / Zer gehiago?</i> <i>Ik: E:</i> <i>Ir: Non gertatu zen?</i> <i>Ik: Nire etxean.</i> <i>Ir: Bale / Eta zein izan zen / Zein izan zen zuk egindako bihurrikeria?</i> <i>Ik: E: izkutatu nuela etxeko mobila garbigailuaren kajoian.</i> <i>Ir: Badakizue garbigailuek dauzkatela bi kajo / Garbigailuaren goiko kajoian edo beheko kajoian?</i> <i>Ik: Behekoan.</i> <i>Ik2: Pero si es super pequeño.</i> <i>Ir: Bai baina oso txikia da eta sartu daiteke / Bale, eta?</i> <i>Ik: E: (3")</i> <i>Ir: Eta konturatu zirenean ama eta aita telefonoa ez zegoela zer egin zuten?</i> <i>Ik: E: haserretu bakarrik.</i> <i>Ir: Eta azkenean aurkitu zuten?</i> <i>Ik: Bai.</i> <i>Ir: Bururatu zitzaien garbigailuan begiratzea?</i> <i>Ik: Bai</i></p>	<p><i>Ir: Noiz gertatu zen IK?</i> <i>Ik: E: ni urte bat nuenean.</i> <i>Ir: Oso ondo / Norekin?</i> <i>Ik: E: (3'')</i> <i>Ir: Norekin?</i> <i>Ik: E: nire izekoren e: e: txakurrekin.</i> <i>Ir: Zure izekoren txakurrekin, bale / Non gertatu zen?</i> <i>Ik: E: nire izekoren etxean.</i> <i>Ir: Bale / Zer gertatu zen?</i> <i>Ik: E: ni nengoen nire izekoren etxean / eta e: nik sartu nintzen txakurren ohean / eta e: hartzen nion janaria eta botatzen nuen / eta nire ama eta nire izeko barrez egiten ari ziren / eta nire amari grazia egiten zuten / eta botatzen ziren e: ohearen alboan.</i> <i>Ir: Nola botatzen ziren, gogoratzen duzu?</i> <i>Ik: [Ezetz buruarekin]</i> <i>Ir: Normal / hori istorioa kontatu dizu ama edo aitak ezta?</i> <i>Ik: [Baietz buruarekin]</i></p>
--	--

C-B jauzia egin duten ikasleek **bereziki adierazle hauetan egin dute aurrera.**

Testuaren egitura eta testuaren kohesio eta koherentziari dagokionez, aurretestuan irakaslearen laguntza behar du ikasleak testuaren egitura osoa errespetatzeko. "Ondorioa" esaterako, irakasleak galdetzen dio. Ondotestuan, aldiz, testua beregaina da, ikasleak berak hasi eta bukatu egiten du. Kasu batzuetan "eta, gero" erabiltzen da kohesio-baliabide moduan edo, ez da apenas juntagailurik baliatzen baina, testua kohesionatuta geratzen da. Dena den, euskaraz aritzeko ohitura gehiago duten ikasleen kasuan, adibideren bat topatu baitugu, hauxe ikusi dugu: aurretestuan eta ondotestuan atal guztiak daude, baina ondotestuan hobeto kohesionatuta. esaterako: aurretestuan (eh: logela batera eta ya horrela [x] jaten eta ondorioa zen); ondotestuan ("eta orduan, furgoneta eh, eh hondatu zen eta amak esan zion.... furgoneta eta gero, ya hasi genuen Malagara joaten").

Egoera komunikatiboari eta eginkizunari hobeto egokitzen dira, aurrerapena agerikoa izan da adierazle honetan. Aurretestuan ez zaio guztiz erantzuten eginkizunaren helburuari. Bihurrikeria ez da guztiz kontatzen, edo ez da guztiz ulertzen, zatikatuta kontatzen da. Ondotestuan aldiz, eskakizun komunikatiboari hobeki erantzuten zaio, hau da, gertaera zertan datzan ulertzen da hobeto.

Jariotasunari eta diskurtsoa eraikitzekeo estrategiei dagokienez, aurretestuan diskurtsoa laburragoa da, eta ez du konplexutasun handirik. Ondotestuan aldiz, diskurtsoa luzeagoa da.

C-B jauzia egin duten ikasleek bereziki **adierazle hauetan izan dute jauzirik txikiena**.


Sintaxian, ez dago jauzirik adierazle honetan. Aurretestuan soilik "eta" juntagailua bidez baliatzen dira, ez dago beste koordinaturik ez menpekorik. Ondotestuan, ikasle batek, esaterako, hiru aldiz egin du beste ikasle batek saiakera menpekoa osatzeko, baina ez du lortu forma zuzena erabiltzea, hementxe zenbati adibide: *"*que dago goian; *deitzen zela"*. Koordinatuak egoki erabiltzen dira, baina aberastasun gutxi dago, izan ere, ez dira agertzen, ez hautakari, ez emendiozkorik ere.

Deklinabidean ez da apenas aurrerapenik egon. Oinarrizko kasu-markak egoki erabiltzen dituzte aurretestuan (*"Malagako hondartzan" / "nire etxean" / "lurrera" / "nire etxeAN"*), eta ondotestuan, ere bai, (*"egun batean" / "hondartzan" / "PlaymobileKO etxeAREKIN"*).

Aditzaren aldetik, jauzia oso txikia da, eta kasuren batean ez da jauzirik gertatzen. Aurretestuan *egon* aditzaren forma trinkoa asko baliatu da, eta nor-nork paradigmearan akatsak aurkitu dira (**bultzatu nion*). Ondotestuan, maiz agertu da *egon* aditzaren forma trinkoa (*"nengoen", "jolasten nengoen", "korrika egiten nengoen"*), horrez gain NOR-NORK paradigma egoki erabiltzen da (*"egin nuen, eman nuen"*) baina ez beti, esaterako ezezko formetan hutsuneak topatu dira, (**nik ez nahi nuen*). Dena den, aipatzekoa ikasle baten kasuan antzeman den aurrerapena: aurretestuan ikasleak zailtasun handiak ditu lehenaldian kontatzeko. Saiakera egiten du (esan zidan, gertatu zen), baina ondoren, gertaera azaltzeko orainaldira jotzen du (erori da, joan naiz, apurtu dut). Ondotestuan aldiz, kontakizuna oro har, lehenaldian kontatzen da (nituen, bota nuen, hartu nuen, izan nuen).

2.2 IRAKASLEEN GARAPEN AZTARNAK

Bigarren ikergaian, irakasleen hautemateetan ahozkoaren lanketari buruzko garapen aztarnak aztertu dira. Helburua izan da proiektuan parte hartu aurretik (0 fasean) eta ondoren (amaiera fasean), irakasleek ahozkoa lantzeari buruz dituzten hautemateak jasotzea, emandako jauzia aztertzekeo asmoz. **3 ikastetxek** hartu dute parte eta **8 irakasleren** pertzepzioak jaso dira (LH3n, 4 irakasle, eta LH4n, beste 4), **16 testigantza** guztira. Corpora jasotzeko focus-groupak antolatu dira, 0 fasean eta amaierako fasean.



2.2.1 Azterketarako adierazleak

Irakasleen testigantzak behin jasota, antolatuta eta transkribatuta, corpusaren analisi kualitatiboa egin dugu, Atlas.ti ikerketa kualitatiborako tresnaren bitartez. Irakasleek emandako informazioa kodetu dugu eta gai orokorretatik eta testigantzatik ere abiatuta, azpiko gaiak, kategoriak eta kodeak sortu ditugu. Prozesu horrek lagundu digu "titularrak", hau da, emaitzak ateratzen modu sistematizatu batean. Emaitzen arteko gurutzaketa ere egin dugu, gai desberdinetan irakasleek emandako jauzia aztertzeko asmoz.

Irakasleen pertzepzioak aztertzeko adierazle hauek erabili dira:

- Astean zenbat denbora eman duten ahozkoa lantzen
- Arreta edo fokua non jartzen den
- Irakasleen oztopoak edo zailtasunak zein diren
- Irakasleei zer nolako laguntza eman dieten
- Euskaraz eroso aritzen direnekin zer estrategia erabiltzen dituzten
- Espazioaren antolaketaren eragina zenbaterainokoa den
- Irakasleen jauzia, irakasleen pertzepzioan (amaierako fasean bakarrik)
- Ahozkoa lantzeko irakasleen pertzepzioan jauzia (amaierako fasean bakarrik)

2.2.2 Emaitzak

Analisi tematiko horretatik, hurrengoko emaitzak atera ziren:

- **Irakasleek modu bideratuan landu dute ahozkoa, eta fokua lekuz aldatu dute; amaiera fasean, batez ere komunikazio gaitasunari eman diote garrantzia irakasleen ekoizpenetan.**

"Lehen ere ahozkoa egiten genuen edo lantzen genuen, baina ez zegoen hain prestatuta, ez dakit nola esan, fokua jarrita, non jarri, zer begiratu, zer... eta ez zegoen hain... landuta."

"[...] nire ustez, hizkuntzaren helburua, komunikatzeko gaitasun hori lortzea."

- **Irakasleek ikasleen ahozko ekoizpenak bideratzeko estrategia berriak lortu dituzten (hizkuntza betaurrekoak), eta zuzentzeko orduan, esaterako, gako berriak eskuratu dituzte.**

“Zuzenketak egin beharrean, que hori da nire beste gauza ikusi dudana egiten nuela txarto egiten nuela. Askotan, nik egiten nituen zuzenketak, eta gainera berehala, eta hor txipa aldatu dut pixka bat, eta beste umeen laguntza eskatu dut. Eta hori behai niretzako, beraientzako izan da lagungarria behai. Ba hasten da gauza bat kontatzen, e: ez daki nola jarraitu, “a ver, nork lagunduko dio ez dakit zer esaten?”, “edo bueno, saiatu pixka bat, esan beste modu batean”. Eta nik uste dut aurretik ni nintzela, en plan, zuzenketak egitearen alde, eta gainera berehala. Eta nik horretan txipa aldatu dut pilo bat. Utzi behar diogu akatsak egiten, eta pentsatzen, edo beste modu batean esaten, edo bestean laguntza... Horrela behai besteak inplikatzeko dituzu behai ba zerbait komentatzerakoan. Eta ni askotan zen, “ez horrela ez” edo esaten dute casa “etxea”, edo ez dakit zer, eta horretan bai txipa aldatu dutela. [...]”

“Bai es que dena ezin zuzentzea. Nik adibidez, igual astean, ez dakit, igual lantzen ari naiz edo lantzen ari gara NORK kasua... orduan bakarrik zuzentzen ditut nik, hori, akats horiek. ...Eta besteak ez. Eta gero pues igual NOREN kasua, eta zuzentzen dut NOREN kasuaren akatsak. Hori egiten dut nik, horrela.”

- **Espazioaren eraginari dagokionez, irakasle guztiek jauzia eman dute. Faktore horrek hasieran uste dutena baino eragin handiagoa dutela ikasi dute.**

“Niretzako asko eskertu dut gelan egon den giroa, osa, en plan gelan eserita egotea, ni hasieratik esan nion hemen ba dela leku bat gustura egoteko, gure gauzak kontatzeko, e: ez zela en plan azterketa baten modukoa, baizik eta bakoitzak bere esperientziak kontatzeko, ni egongo nintzela laguntzeko, eta nik uste dut, hori, e: lasai eta eroso sentitu zirenez, ba: horretan aurrerapausoak egon ziren. Azkenean, nik uste dut, gelan beti pentsatzen dutela ebaluatzen ari garela, eta askotan behai, urduriago jartzen dira. Eta nik uste dut hor zen como leku berezi bat, eta gainera hori, beraiekin ondo azalduta egon behar zirela lasai, gauzak kontatze, eta ez dakit zer... Nik uste dut hori beraientzako behai ba lagungarria izan dela.”

- **Irakasleek ahozkoa lantzeari astean eskaintzen diote denbora nabarmen areagotu dute.**

“X gehiagotan jartzea, lehen egiten bagenuen, hombre, e:: ahozko adierazpena etengabe egiten duzu baina holan modu formal batean ez? eta orain egin dugun moduan, jarriko nuke gehiagotan, lehen baino gehiagotan. Osea, ikusten duzulako, ba hori, emaitzak ikusita ez? Idatzizko adierazpenean zelan idazten duten ez? Osea, eta gero, bueno, ahozkoan behai, ba ez dakit, ba ikusten duzu gehiago egin behar dugula, osea igual astean hirutan, edo astean bi... bueno, gehiagotan, lehen baino gehiagotan egingo nuke nik.[...] Gehiago, askoz gehiago egin dugu orain.”

“Gehiago! [...] Nik 5 bat emango nioke, gainera, bueno, nire egoerarekin ikusita, ni egon naiz bajaran eta orduan egon naiz 2 saio egiten egun berean. Orduan, 5 emango nioke, osa lehen ere ahozkoa egiten genuen edo lantzen genuen, baina ez zegoen hain prestatuta, ez dakit nola esan, fokua jarrita, non jarri, zer begiratu, zer... eta ez zegoen hain... landuta”

- **Irakasleek ez dute euskaraz eroso moldatzen diren ikasleekin erabiltzeko estrategietan jauzi nabarmenik eman. Hala ere, ikasle horiek ere garapena egin duten modu desberdin batean; batez ere eredu rola hartzen, “irakaslearen paperean” sartzan eta haien ikaskideei ekoizpenetan laguntzen.**

“Bai, osa, haiengan, osa e: euskaldunengan, eta gero besteengan bebai. Azkenean hori, haiek ikasi dute hobeto hitz egiten, ez? Ba hiztegi egokia erabiltzen, ba hori, gramatika aldetik dana ondo esaten. Haiek ikasi dute, eta besteok ere ikasi dute, oso aberasgarria izan da bebai ba besteok eredu on bat ez? Izatea, azkenean, jo pues ez dakit, gogoratzen ari naiz e: bat, dala hori, guraso euskaldunak, ez dakit zer... eta oso ondo hitz egiten du. Orduan, aberasgarria izan da besteontzat bebai. Bai, berarentzat, hobeto ikasi duelako ba hori gauzak e: arreta jartzen ez? gauza batzuetan, eta berak ere hobetu du, igual bere:, ez dakit, bere helburua ez zen, ez dakit, e: -la jartzea baino bai k, adibidez bai? Orduan berak hobetu du eta besteek belarria egiten eta azkenean, bai, berari entzuten... hobetu dute. Azkenean, hobetu egiten dute bebai...”

“Nireak egin duena da irakaslearen papera pixka bat, orduan ez da aspertu e? baina... eta [...] ez da bakarria izan. Osa dinot, beraien artean hori egiten zuten. Lehen komentatu duguna... Zuzenketak egiten ziren...”

- **Nahiz eta langai izan diren erronka linguistikoetan aurrerapena ikusi, ikasleek oztopo eta zailtasun batzuk izaten jarraitu dute; hala ere, erronkak desberdinak izan dira.**

“[...] egia da egon dela hobekuntza, eta kontzienteak dira. [...] Bai, hori lortu dugu, baina egia da, hori ez da [...] guztiz zuzendu.”

2.3 IKERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketatik ateratako ondorio orokorrak hauek izan dira:

- **Ikasleen ahozko hizkuntzan garapen aztarna argiak antzeman dira:** Testuaren kohesioan eta koherentzian sumatu da alderik nabarmenena; egoera komunikatiboari hobeki erantzutea lortu dute; baita diskurtsoa eraikitzeko estrategietan ere. Jauzirik txikiena jaso da sintaxiaren eta morfologiaren alorrean izan da, deklinabidean eta aditzen erabileran. Horrez gain, irakasleen esanetan, ikasleek autozuzenketak egiteko gaitasuna garatu dute eta elkarri zuzentzen aritu dira. Berba-lapiko proiektuan bakarrik ez, beste arlo batzuetan ere hizkuntza gaitasuna hobetu dute; eta idatzizkoan ere hobekuntza ikusi dute.
- **Irakasleen pertzepzioan jauzia eman da, ahozkoa lantzeko duten hautemateetan, alegia:** irakasleek proiektuan zehar, ekoizpenak

bideratzeko eta zuzentzeko estrategia berriak eskuratu dituzte, aldi berean, ikasleek egindako garapena eta metodologiaren inpaktuaz ohartu dira. Hala, emaitzek erakutsi dute, irakasleek Berba-lapikon parte hartu aurretik ahozkoa lantzeko zeukaten ikuspegi eta oinarria eraldatu egin dela proiektuan aurrera egin ahala.

- **Irakasleei hizkuntza-betaurrekoak eskaini zaizkie:** alde batetik, lanketa sistematikoa egiteko, eta beste alde batetik, erronka linguistikoak modu graduatuan lantzeko eta aldamiatzeko. Orokorrean, proiektuak irakasleen ahalduntze prozesuan eragin du.
- **Irakasleen hautemateek eta ikasleen garapen aztarnek bat egiten dute:** bi ikergaietatik ateretako emaitzen gurutzaketatik ondorioztatu dugu, irakasleek aitortutako aurrerapenak eta zailtasunak bat datozela ikasleen azterketatik eratorritako aurrerapen eta zailtasunekin.

3 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian jaso ditugu 2022an, bi ildoetan egindako lanetatik ateratako ondorio nagusiak:

- **Hedatze prozesua arrakastatsua izan da:** 2022an lehen aldiz parte hartu duten ikastetxe guztiek datorren ikasturtean jarraitzeko gogoia adierazi dute. Balorazioei esker identifikatu ditugu pilotaje honek arrakasta izateko ezinbestekoak izan diren zenbait osagai: irakasleekiko gertutasuna, bereziki, Hizkuntza Normalizaziorako Aholkularien laguntza; hasieratik ikastetxeekin adostutako antolaketarekin bete izana, eta, gaiari jarraipena emateko aukera eskaini izana.
- **Talde-lanaren beharra eta eraginkortasuna agerikoa izan da, beti ere prestakuntza ardatz izanik:** proiektuaren hedapen fasean *Berba-lapiko taldea-HNA-irakasleak* taldearen funtzionamendua eta kohesioa giltzarri izan dira. Are gehiago, talde honi esker prestakuntzak hartu duen indarra eta izaera azpimarratu beharra dago.
- **Berretsi da Hizkuntza-Errutinen metodologia eraginkorra dela:** 2.0 ikerketari esker, Berba-lapiko metodologiaren inpaktua neurtu da. Emaitezke erakutsi dute, alde batetik, azterketan parte hartu duten ikasleek ahozko maila hobetu dutela eta estrategia berriak irabazi dituztela; beste alde batetik, irakasleen ahozkotasanari buruzko pertzepzioan ere hobekuntza egon dela baieztatu da.
- **Irakasleek ahalduentzeko pauso bat gehiago eman da:** proiektu honetan irakasleen prestakuntzak garrantzi handia du. Balorazio eta ikerketari esker ikusi da, irakasleek ikaste-objektuak argiago identifikatu dituztela, ahozkoa lantzeko eta zuzentzeko estrategia berriak eskuratuz. Irakasleek, "hizkuntza-betaurrekoak" findu dituzte bidean, eta horrek segurtasuna eman die, adierazi dutenez.
- **Berba-lapikori buruzko balorazio positiboa egin dute:** hasierako denbora faltari buruzko zailtasunak gainditu dituzte, eta orokorrean gustura aritu dira. Irakasleen arabera, ikasleek "benetan komunikatu beharra" sentitu dute, eta ahoz sortzen eta gozatzen ibili dira.